

**[BEHEKO KAFETETXEO]**

Beheko kafetetxeko  
jendea  
gustora dabil dirudienez:  
Lekaio,  
hordago,  
beste kopa bat, ooo!  
dena erdi nahastean eta  
erdi-batera eta altu.

Beheko kafetetxeko jendea  
handia dela dirudi.

Batek ez daki  
beheko kafetetxera joatea-edo  
hobe ez ote lukeen,  
bakarrik eta isilik  
eta ez dakit norbere  
barruko zer  
nahasdura oso isilean espresatzen den  
delakoaren bila  
ibili baino.

Baina ez naiz beheko kafetetxera jaitsiko  
eta ez goikora igoko.  
Isiltasuna edan nahi dut,  
bakardadea edango dut,  
barruko neure  
zer den ez dakidan hortan  
jausi arte.

Beheko kafetetxeko jendeak  
alde egin du dirudienez.  
Goiko kafetetxekorik ere  
ez da entzuten.

Eta,  
orain bai ez dakidala  
beheko kafetetxera  
nahiz goikora joatea  
hobe ez ote nukeen.